

## ‘El Diario Vasco’, ‘El Mundo Deportivo’... eta ‘Maxixatzen’

DUELA 19 URTE argitaratu zuten lehenengo aldiz *Maxixatzen* aldizkaria, Azkoitian (Gipuzkoa). Azken sei urteetan, publikazioa etenda izan du kudeatzen duen Maxixatzen euskara elkarteak. Geldialdia egin zuten hausnarretarako astia izateko, euskara elkarteak nondik jo pentsatu nahi zuen.

2009an aldizkaria desagertu eta 2012an herriko euskararen egoeraren inguruko azterketa egin zuen elkarteak. Besteak beste, zein hedabide erosten eta irakurtzen zituzten galdetu zieten herritarrei. Gehien kontsumitzen zituzten hedabideak *El Diario Vasco* eta *El Mundo Deportivo* ziren. Gaztelaniako hedabideak zituzten irakurgai azkoitiarrek, eta azterketak emandako emaitzen arabera, kultur erreferentzia atzerritarrek zituzten. 2011ko datuen arabera, azkoitiarren %74,5 euskalduna da eta %12,9 ia euskalduna.



Sei urteko etenaren ondoren, *Maxixatzen* hilabetekaria berriz abiaraztea erabaki du izen bereko Azkoitiko euskara elkarteak.

Elkarteak garbi ikusi du *Maxixatzen* berpizteko premia. Hilabetekaria hilabete batzuetan doan banatuko badute ere, gero bazkideek baino ez dute jasoko. Bestalde, egunerokoari heltzeko asmoz webgunea jarri dute abian: [www.maxixatzen.eus](http://www.maxixatzen.eus).

## Bahea

Anjel Lertxundik EAEko Euskararen Legeaz *Berrian* esanak:

“Hizkuntza dinamikoa da, hazi edo erkindu egiten da, hiztunen eguneroko martxak aldatu, moldatu, itxuraldatu egiten du onerako zein txarrerako. Biziok ematen diogu bizia hizkuntzari.

1982an kontsentsu handi batez onartutako EAEko Euskararen Legea ez da aldatu. Egoera linguistikoa, ordea, bai. Besteak beste, euskara sartu zen eskola guztietan, eta A deitu zitzaion gaztelania nagusi izango zuen heziketari, B elebidunari, D euskararenari. Ez dakit propio eman zitzaien kategoria mailaketa horri, baina adierazkorra da: orduko errealitatea islatzen du. Gaur D eredia da nagusia eta guztiz onartuena. Mailaketak, ordea, errealitate erruz gainditu bat izendatzen du.

İnigo Lamarkak esan berri du hobe litzatekeela legea bere horretan uztea, ez genukeelako orduko kontsentsurik lortuko. Zu zuhur, ni nirekoi, hau ausart, hura urardo, gaixotzen ari da (gaixotzen) euskararen aldeko adostasun giroa.

Hauteskundeen itzal luzea baino ez balitz...”

## EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

### Eredu sindikala birpentsatu

JOAN DEN ASTEAN maiatzaren lehena ospatu da mundu osoan. 1886an Chicagon gertaturiko sarraskia gogoratzen da data horretan; zortzi orduko lan eguna aldarrikatzeko greba egiten ari zirela, sei langile hil zituzten. Orduetik, sindikalgintza garatuz joan da gaur egun arte. Eta garapen horretan, Europako sindikalgintzak hainbat etapa izan ditu. Batzuetan, langileen defentsarako eta aldarrikapenerako erakunde baino, euren afiliatuentzako zerbitzu burokratiko huts bihurtu da. Patronal eta Gobernuarekin egindako itun eta trukeen ondoren, kasu askotan badirudi klase borrokatik urrundu dela, hau jada existituko ez balitz moduan. Baina klase borroka jarraitzen du, beste modu batzuetara, hor dago, beti bezain gordin eta krudel.

Testuinguru horretan, sindikalismoak ongi egingo luke klase borroka horretan presentzia izateko modu berriak birpentsatuko balitu. Ondo antzeman behar du non dagoen gaur langile subjektua eta non patronala, baita zein paper jokatzeko duten gobernuak azken honen zerbitzura. Langileak gaur egun fabriketatik harago dagoen moduan –eta emakumeak langileria horretan

paper oso garrantzitsua betetzen du–, patronala eta kapitala lausoago ageri zaigu, egoitzarik ez duten eta haien arduradunak ere ezagutzen ez ditugun finantza sozietateen bidez. Klase borroka finantza instituzioetan ere egin behar da, baita multinazionalen zerbitzura egindako hitzarmen handiak gestionatzen dituzten nazioarteko erakundeetan ere. Nazioarteko borroka eta elkartasunak garrantzi handia dute eta egungo sindikalgintzak ez luke hori ahaztu behar, landu eta indartu egin beharko luke.

Euskal Herrian, subiranotasun politikorik ez edukitzea beste faktore bat da klase borroka horretan, eta sindikalgintza abertzaleak erantzun globala eman beharko lioke. Gaur egun ez da estrategia politiko bakar bat konpartitzen eta horrek sindikatuen ekintza batasuna eragozten du. Ondo legoke iragana atzean utzi eta orainari eta geroari erantzunak ematen hastea. Horretarako, beharrezkoa da eredu sindikala birpentsatzea.

Juan Mari Arregi